

**BATXILERGOKO TITULUA ESKURATZEKO****IKASTETXE ETA PLANGINTZAKO ZUZENDARIAREN JARRAIBIDEAK**

Batxilergoko ikastetxe publikoek ikasleen matrikulak onar ditzakete, nahiz eta Batxilergoko titulua eskuratzeko irakasgai batzuk gaintitu gabe izan, baldin eta ez badaude Batxilergoko beste erregimenen batean matrikulatuta.

- **Izena emateko epea** ikasturte bakoitzeko apirilaren 30ean amaituko da.
- **Edukiak:** 76/2023 Dekretua, maiatzaren 30ekoa, Batxilergoaren curriculumaz zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzekoa (EHAA, 2023-06-09)) arautzen ditu jakintzagai komunak eta modalitateko jakintzagaien edukiak.
- **Matrikula egiteko lekua:** Posible bada, probintziako UBIn edo azterketa egin nahi den Batxilergoko modalitatea irakasten duen edozein **ikastetxe publikoan** egin daiteke.
- **Dokumentazioa:** Ikastetxeetako idazkaritzetan emango da informazioa.
- **Nahitaezko baldintzak:**
 - 1.- 20 urte betetzea proba egiten den urte horretako abenduaren 31 baino lehen.
 - 2.- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu-titulua edo baliokidea izatea.
 - 3.- Euskal Autonomi Erkidegoko udal batean erroldaturik egotea.
- **Irakasgaiak:** Matrikulak jakintagaika egingo dira, eta ez dago mugarik. Jakintzagaiak ematen dituzten irakasleek informazioa emango dute ikastetxe horretan proba nola izango denaren inguruan.
- **Azterketak egiteko egunak:** Matrikula egin dueneko ikastetxeak ikasleari jakinaraziko dio zer egunetan egingo diren azterketak. Ikasleak adierazten badu graduko ikasketak egiteko probetara aurkezteko asmoa dela, maiatzaren 30a izango da azterketak egiteko azken eguna.

Vitoria-Gasteizen,

Eugenio Jiménez Ibáñez
Ikastetxe eta Plangintza Zuzendaria

